



Paulo Agirrebaltzategi (*)

Iaztik hasita martxoaren 21ean ospatzen dugu Herrien Europaren Eguna. CONSEOk izendatu zuen horrela. Mendebal Europako Estaturik gabeko Herrien Konferentzia (Conferencia de Naciones sin Estado de la Europa Occidental) da CONSEO erakundea. Orain dela gutxi egina du horren Nazioarteko Batzordeak bere bilera Euskal Herrian, Donostian.

Estatuen Europa daukate oinarritzat eta markotzat Europako Komunitateek, eta horien artean EEE (Europako Ekonomi Elkartea)k. Europa horren aurkako aukerabidea jartzen du mahai gainean CONSEOk: hau da, Herrien Europa. Horren alde borrokatzen dira estaturik gabeko herriak.

Hizkuntza gutxituak eta irakaskuntza

Herrien Europaren Eguna-k asmo nagusiren bat eduki ohi du urte bakoitzean. Iazkoan estaturik gabeko herrien hizkuntza gutxituen normalkuntza izan zen. Aurtengoan irakaskuntza eta hizkuntza gutxituak da eguneko gaia.

Zalantzarik ez dago bereziki XIX. mendetik honantz eskola zabaltzean eta irakaskuntzaren arazoa estatuek beren eskuetan hartzean, hizkuntza minorizatu edo gutxituen ordezkapena ikaragarri bizkortu zela, eskolatik kanpo gelditzean horiek. Administrazioarekin eta komunikabideekin batera, irakaskuntza izan dute Gobernu zentralistek tresna politikorik nagusienetakoa beren hizkuntz politika aurea eramateko, herri zapalduen hizkuntza gutxituen kaltetan. Ezaguna da, besteren artean, eraztunaren historia lotsagarria, gure artean oraindik bizi diren zaharrek eta ez hain zaharrek beren bizkarretik jasana dutena.

Eraztunaren zigorra ala ez, euskaldun askok jasan behar izan dugu geure amarengandik ikasitako hizkuntzaren eta eskolan ezartzen ziguten erdararen arteko eskizofrenia eta ama-hizkuntzarekiko gutxiespena.

Ez dugu hau Europako herrietako hizkuntza minorizatuak irakaskuntzan duten lekua azaltzeko unea. Aski dugu agian Euskal Herrira bertara begiratzea: Iparraldera, Nafarroara eta Komunitate Autonomora bertara.

Irakaskuntza euskaraz

Beste hainbat herritan ez da Euskal Herrian baino hobe, beren hizkuntza eskolan eta irakaskuntzako tres-

Martxoak 21: Herrien Europaren Eguna

natzat erabiltzeari dagokionez. Eta herri guztien berroka —hizkuntza gutxituak berreskuratzeari— legin batbera da funtsean. Beharrezkoa da elkartasun Horretarako da sortua nagusienik CONSEO. Berri Herri bakoitzak bere lurraldean eraman behar du bere ziki aurrera bere hizkuntza nazionalaren normalizatzen lana. Euskaldunok Euskal Herrian.

Ikastolek eraman dute bereziki aurrera lan hori honetan, irakaskuntzaren alorrari dagokionez. Ikastetxe sorrera eta horien historia euskararen berreskuratzaren arazoari erabat lotuta joan da. Horregatik, erabide horri tinko eusteko, eta borroka berbera aurrerantzat hartzen Europako beste herriekin bat eginez, aurtengo Herrien Europaren Eguna irakaskuntza euskaraz aldarrikatu du. Euskal Herri osorako.

Errebindikazio hori aurrera eramateko Europako bertan onarturiko edota Parlamentura eramandako akordio (gaiak) baliagarriak ditugu neurri batez. Iazko udazkenean M. Willy Kuijpers parlamentari flamandarrak Europako Parlamentuan aurkezturiko erabakigarriak, bere zuhertasun eta xuhertasun gehiegizkoak guzti, ikastolak bezalako eskolen onarpen ofiziala eskatzen die gobernuari. Harantzago doa Europako Kontseiluko «Lekuko eta eskualdetako Agintaritzen Konferentzia Iraunkorreko» Batzordeetako batek aurkeztutako erabakigarriak hizkuntza minorizatuetakoa irakaskuntza dioena. Horren arabera, sinatzaile guztiek emango dituzte hitza, hizkuntza minorizatuetakoa herritarrei beraien hizkuntzan maila guztietako irakaskuntza eskatuz, edota gutxienez maila ertaineko eta goi-mailako irakaskuntzan ere beraien hizkuntzaren irakaskuntza eskaintzeko.

Iazko urriaren 21ean eztabaidatu zuten «Hizkuntza gutxituen Karta europar» hori. Horren onarpenordea, gerorako utzi zuten.

Ipar Euskal Herrian kultur elkarte eta erakunde burutu berriak dituzten Euskaldungoaren Ihardunaldietan «Euskaldungoaren eskubideak» baieztatu eta aldarrikatuak dituzte. Horien artean lau eskabide dituzte ipiniak irakaskuntzari buruz: a) Euskal irakaskuntza Euskal Herriko haur guztientzat; b) A eruditik B eraberrira iragaita klase elebidunak hedatuz; c) diru-erabileraren guntza osoa ikastolentzat; d) euskal diploma ofizialak.

Bateginik: Euskal Eskola Nazionala

Aurtengo Herrien Europaren Eguna «Bateginik»



en barru-barruan gertatuko da; horren asmoa eta helburuak osorik bat datoz.

etik, Iparraldeko eta Nafarroako ikastolen aldeko erlketara du helburutzat «Bateginik» ekintzaldiak: 200 ni, euskarazko irakaskuntza Euskal Herri osora zatz joateko. Herri-kanpaina hau, borondate tinen baieztapena ezezik, Euskal Herrian euskarazko askuntza segurtatzen ez duten agintarien salaketa oski.

Bestalde, Europaren mailan ipintzen du «Bateginik» kanpainak euskararen arazoa. 600.000 sinadurez sendotuko den dokumentua Euskal Herriko eta Pariseko nahiz Madrilgo agintariei ezezik Europako parlamentuari ere dago zuzenduta. Agiriaren puntuetako bat da honako hau: Espainia eta Franziako estatuak premia ditzala Europako Parlamentuak, euskarak Euskal Herri osoan (hegoaldean eta iparraldean) onarpen ofizial osoa eta berdina eta babesa izan ditzan.

EKBek Euskal Herriko Euro-parlamentarigaiei egingako gutun irekiko 7. puntuaren arabera da eska-bide hori.

Dena dela, «Bateginik» ekintzaldiaren helburua euskara Euskal Herri osoko irakaskuntzan erabiltzearena baino harantzago doa, Euskal Eskola Nazionala bilatzen duenean; Euskara Hizkuntza Nazionalaren baiezta-penari dagokiona.

EHIken eta EKBen eraginez antolaturiko «Bateginik» kanpainaren bidean lagungarri eta osagarri gertatuko da CONSEOren eraginez antolaturiko Herrien Europaren Eguna. Bertan ikusi ahal izango ditugu aurtengoaren asmoa aldarrikatzen duten kartelak, bereziki eskola guztietan «Irakaskuntza euskaraz» sloganarekin zabalduko direnak.

Zalantzarik gabe, euskararentzako eskubideak eta eskabideak aldarrikatzen ditugun bitartean, egokia eta beharrezkoa da gure antzeko Europako beste herrien egoera ez ahanzte, denok bait dugu geure zeregina Europa berri hori —Herrien Europa— eraikitzean. ■

(*) Euskal kulturaren langilea.

BILKI KIROLAK

Kirol oinetakoak
Txandalak
Galtzak
Alkondarak
Galtzerdiak
Kirol makinak
Kanguruak



Calzado deportivo
Chandals
Pantalones
Camisas
Calcetines
Aparatos
Chubasqueros

KARHU - Especialistas en zapatillas deportivas y de competición en función de la anatomía del corredor

La Torre, 9. Telf.: 416 63 67. Bilbo

BILBO ZAHARRA

CAFETERAS

**nuova
simonelli**

1.ª MARCA EN ITALIA

BANATZAILEA:
RAMBUR EXPRESS, S. A.

ORERETA

Diputazio Plaza, 2. Telefonoa: 512242